

H- 17739!

R- 39308

ATV

5160

AMA VIRGIÑA

ARANZAZUCOAREN

CONDAIRA ZORTZIGO AUNDIETAN

ETA AURTENGO ERROMERIRACO

ITZ NEURTU BATZUEC.

BEAR DAN BAIMENAREQUIN.

TOLOSAN :

EUSEBIO HOPEZEN MOLDIZTEGUIAN

1881-garren urtean.

ATV

5160

BIBLIOTECA DE

Sección de 12

Estante 2

De propiedad.



OLITE



N^a 5^a DE ARANZAZU

Los Ilmos. S^s. Obispos de Pamplona y Huesca
conceden 40 dias de indulgençia a cada uno
que rezare una salve delante de esta Imagen.

ERREGUA,

—
A M A V I R G I Ñ A

ARANZAZUQUAREN BITARTEZ.

¡ Oh Jainco gucialtsua, ! diñatu ciñana zure serbitzari Moises-i eracustea cere escualdia aranza batean, ceña erretzen bazan ere etzan quiscaltzen, eta ceñean iruditzen zan sortucaí gucien arteco garbien da ederrena dan Maria beti Doncellaren errueza ! Iguzu, arren, bera Aranza-ren icen escutatupean agurtatzen degun zure serbitzarioi, culparen aranza zulatzalleetic libre, eta grina-gaiztoen sugar-artean erre-gabe ibiltzea ; egunen-batean mereci dezagun zure Ama degun Andre onen bitartez eta erreguz cere arpegui ederra icustatzea, eta berequin batera beticotasun gucian glorian zualabatzia. *Ala izan dedilla.*




ARANTZAZU-QUAREN
CONDAIRA
ZORTZICO AUNDIETAN

✻ 1 ✻


Izango dira munduan asco
Jatorriz erri garbiac,
Baña orretan ez dira azquen
Beinic-bein euscal erriac ;
Nun susterrican ez duten artu
Campotic sartu berriac,
Etorri arren erromatar, naiz
Moroen talda aundiac.




Beren fedea ciquindu gabe,
 Jaungoicozcoa da beti,
 Cein euscaldunen Aita Tubalec.
 Onera zuen ecarri ;
 Etsai guztiai fedez ta armaz
 Emanaz beti arpegui;
 Idolatriac lecuric emen
 Seculan ez du iduqui.



Ain zan sendoa eta bicia
 Euscaldun zarren fedea,
 Jaungoico bacar bat izan dala
 Munduaren eguillea ;
 Ta beragandic jechico zala
 Lurreco Salvatzallea,
 Gurutzan illda, zabaltze arren
 Guri ceruco atea.



Gurutze orree Lauburu dauca
 Euscaraz bere icena,
 Cantabriarrac beren guerretan
 Beli cecatzen bandera;
 Cristo baño len, eta gueroztic
 Guztia orren aldera,
 Iñoiz etzuen, ez, euscaldunac
 Fedean eguiñ atzera.



Ala garaipen andiac asco
 Irabaci, ta paquean
 Provintzia on aizpa iruroc
 Ongui bici citezquean;
 Beren fuero, oitura garbi,
 Cristautasun ta leguean,
 Baña asarre guztiz aundi bat
 Sortu zan beren artean.

✽ 6 ✽

Ezda-baida au izandu zala
 Ya dira bost guizaldi,
 Ta berroqueita amar urtean
 Ciraten guerran ibilli ;
 Castigu latzac ceruetatic
 Eguñic ecar-erazi ;
 Bi urtez emen euriric, bada,
 Beñ ere etzan icusi.

✽ 7 ✽

Jaungoicoaren onegitasun
 Eta erruqui aundiac,
 Azquenez ere bear cituen
 Idiqui emen beguiac ;
 Beste dembora batean Moises
 Nola Israel erriac,
 Errodrigo bat bitartecotzat
 Izan zuen Cantabriac.

Horeb mendian ardiac zaitzen
 Moisesec, bein cebillala,
 Icusi zuen sasi bat sultan
 Eta erretzen etzana ;
 Igarri cion, ots bat entzunda,
 Lurreco gauza etzala,
 Jaungoicoaren toqui santu ta
 Egon-lecu bat ezpada.

Emenchen ere guerta citzayon
 Orobat egun batian
 Mutilcho bati, ardiac zaitzen,
 Arquitzen zala mendian ;
 Mirari aundi baten bitartez,
 Arantz-arbola gaincan,
 Irten citzayon Ama Virgiña
 Sem earequin batean.

Milla lareun irurogueita
 Bedratzigarrenecoa,
 Euscal-errian urte ori da
 Gogoan euquitzeoa ;
 ; Oh Errodrigo Baltateguico
 Uribarri anzocoal
 Zure zai dago, estaldu daizun,
 Ama Arantzazucoa.

Jannac alaſen nai izanican,
 Eguna zapatua zan,
 Noiz Errodrigo Aloñan cear
 Beeco alderuntz cijoian ;
 Uste gabeen alaco baten
 Dacus arantza gainean,
 Bulto bat nola beguizlatzen zan
 Persona baten antzean.

Arri sastraca, sasi artetic,
 Lañter da ariñ estuan,
 Cer guertatzen zan arantza artan
 Ciur icusi nai zuan;
 Nun topa zuen Andre eder bat,
 Aurcho batequin besuan,
 Ta canpancho bat, iñore jo bague
 Otsca arantza onduan.

Ezagutzen du artzai gazteac
 Mirari aundi bat zala,
 Arantza artan basamortuan
 Beguiaquin cecusana;
 Ta canpayaren berez jotzeac
 Uste zuen cirantsala,
 Erruquituric Euscal-erriaz,
 Virgiña aguertu zala.

Aurchoaz ala icusirican,
 Arrituta zan guelditu,
 Ecin asmatuz nundic ta nora
 An citezquean aguertu;
 Beguiraune aundi batequiñ,
 Bertan zan belann-bicotu,
 Mirarituric esanaz humill:
 ¿Nola zaude Arantzan zu?

Orrez gaiñera chit zoratuta,
 Esango cion: Andrea,
 ¿Ez al cenduan sasi au baño
 Toqui bat iñun obea?
 Ceruetaco eta lurreco
 Izanic Erreguiñea,
 ¿Nofa esleitu dezu tronutzat
 Arantzazco arbolea?

Arquitzen cera Seme orrequin
 Cerutar danen gaiñean,
 ¿Emen gaur nola icusten zaitut
 Aitz eta sasi artean ?
 ¡Cer pocic bertan zuequin nasi
 Bicico nintzatequean!
 Baña lenengo, Ama, nai nuque
 Esan contu au echean.

Zorioneco gozo aldi bat
 Ala igarotacoan,
 Osto berdezco estalpecho bat
 Eguiñic al zan moduan,
 Albiste on au iragartera
 Echera ariñ zan juan,
 Ta gurasoac adoratzer
 Lañter eraman cituan.

Agurtu zuten danac batera
 Ceruco Ama gozoa,
 Ta bere Seme guztiz ederra
 Jesus guizon-Jaungoicoa;
 Eta bertatic zocendu ciran
 Calera, esaten contua,
 Aguertu zala arantz-arbolan
 Erreguiña cerucoa.


Eta billatu cituztenean
 Cebiltzala asco gente,
 Caleetatic procesioan
 Oñatin euria-esque;
 Errodrigoc ots eguiten die:
 Alperrie ari cerate,
 Cer guertatzen dan, arren, guztioe
 Orain adi zadazute.

Guezaltzatican piſcat aurrera
 Arantza baten gaiñean,
 Ama Virgiña gaur aguertu zat
 Ermita baten premian ;
 Procesioz an adoratuta
 Jarri arte estalpean,
 Ez uste izan euriric emen
 Icustea bitartean.


Jaramon gabe aren esanai,
 Procesioa aurrera,
 Ta Errodrigoe minberaturic,
 Esaten die atzera:
 Nic diodana atozte dance
 Beguiz, arren, icustera;
 Ala ezpada, aitz gaiñetican
 Bota nazazute beera.

Modu onetan irichi zuen
 Sinistu eraguitea,
 Biamoncan abade eta
 Justiciaz joatea;
 Jarri zan bera danen aurretic,
 Eracusteco bidea,
 Eta arantzan nola cegoan
 Ama estalpe gabea.

Egonic ara aiñ bide charrac,
 Aitz-arte heldurgarriac,
 Joan citezten gracia danai
 Irichi cien Mariac;
 Iñoiz ez ditn desamparatu
 Arc bere serbitzariac,
 Igaroteco erori gabe
 Munduco labañ-arriac.




Urrutitican esango cien
 Jarririe aruntz beguiac :
 An, anche dande nie esandaco
 Ceruco icusgarriac ;
 Esan becela, cituztenean
 Billatu bi irudiac,
 Adoratzeco jarri ciraten,
 Etziñic auspez, guztiaç.




Mariagana beren biotzac
 Oztaz alchatu cituzten,
 Ichas aldean icusten dira
 Odei pilloac, goratzen :
 Euscal-erriaz dalaco cso
 Virgiña erruquitutzen,
 Bere becatu aundiac berriz
 Betico ditu aztutzen.

Olac zituzten eramán berac
 Eguiteco estalpea,
 Nai zutelaco aimbat ondoen
 Maria ezcutatzea ;
 Euria laſter asico zala
 Ceucatelaco ustea,
 Ainbat laſterren asmatu zuten
 Echera biortutzea.

Ez al ciraten Oñatiñ sartu,
 Euria asi zan, bada,
 Eta aitortu zuten guztiac
 Mirari aundi bat zala ;
 Eguia nola ateratzen zan
 Errodrigoren esana,
 Alaco gauzac ecin litzaque,
 Vjrgiña Amac ezpada.



Bera dalaco Jaungoicoaren
 Mesedeen emallia,
 Eta ceruco ondasun danen
 Iturri garbi bicia;
 Ezaguturic oñatiarrae
 Orren gloria aundia,
 Beren elizan asmatu zuten
 Ama ederra jartzia.



Basamortu ta bacarlecutic
 Errira erechi zuten,
 Ceruco Prenda zoragarria
 Bertan iduqui cezaten ;
 ¡Oh miraria! baña cein laſter
 Orra, cer dan guertatutzen,
 Ama Virgiana lengo toquirra
 Gitzaye igues eguiten.

Au icusirie oñatiarrac,
 Berriz zuten erabaqui,
 Guezaltza deitzen zayon toquian
 Bear zutela ipiñi;
 Lecu au zala gendearentzat
 Errazago ta conbeni,
 Aguer-lecura bear zalaco
 Bidean gaizqui ibilli.

Esan ta eguiñ, asi ciraten
 Pillatzen zur ta arria,
 Baita ecarri bertara zuten
 Iduri miragarria;
 Biamonean ermita-guiñan
 Asteco zan poz aundia,
 Guerta citzayen baña atzera
 Mirari auşe berria.

Joan ciraden goicetic oso
 Pocez beteric languillac,
 Baña billatu an etzituzten
 Berac utzilaco gayac ;
 Ez irudia, ez ta arriac,
 Ez, bildu cituzten zurac:
 Aguer-lecura, Irudiaz bat,
 Mirariz ciran joanac.

Onela bada, ezagutu zan
 Ceruco borondatea,
 Aguertutaco toquian Amac
 Nai zuela egotea ;
 Gaitz izan arren, asmatu zuten
 Ermita an eguitea,
 Eta Virgīna Arantzazuco
 Irudiari deitzea.

Ugarituaz lašter asi zau
 Arantzazuco jayera,
 Erromes asco biltzen zalaco
 Virgüña icusitera ;
 Limosna on ta, edo aundiac,
 Uzten cituzten gañera,
 Comentuchoa argatic lašter
 Asi ciran eguitera.

Erligioso mueta asco
 Izan ciran aldatuac,
 Eta azquenez gueratu ciran
 Betico Franciscanuac ;
 Ta abec ere limosna asco
 Ceuzcatelaco bilduac,
 Gueitzea asma zuten eliz ta
 Comentuari lecuac.

Baïta gaiñera moldatu zuten
 Aldare on bat berria,
 Jartzeagatic obequiago
 Irudi miragarria ;
 Nola baña arc auturic cuncan
 Leudabico toquia,
 Mirari batez azaldu zuen
 Etzuela nai berria.

Mututu ciran praille guztiac,
 Itz bague danac guelditu,
 Aldatze aren castiguz zala
 Laſter zuten ezagutu ;
 Eta berriro lengo toquirá
 Ez al zuten bai biurtu,
 Au zan aundia, mututu danac
 Itzez ciran abiatu.

Comentu on au eguinda lañter,
 Bi aldiz auts biurtu zan,
 Erre gaberíc ceruco Prenda,
 Baña, gorde zan bietan;
 Irugarrenez icusten degu
 Gure guizaldi onetan,
 Zazpi urteco guerrate artan
 Cer estadutan jarri zan.

Laugarren aldiz ya dacusgu,
 Comentu au gaur piztutzen,
 Guertatu oyec entzun ta orain
 ¿Nor ez da bada samurtzen?
 Misteriozco lecu au dala
 Biotzetic del sinistzen,
 Mirari utsa baño beneric
 Ez dedalaco icusten.

¡Eche santuba iru alditan
 Cera beera erori!
 Fenix ederra icentzat orain
 Deituco dizut nic zuri;
 Aren antzera ill ta berriro
 Piztuta zaitez zu jaiqui,
 Arabiaco basamortuan
 Ura beciñ miragarri.

Aunditu zaitez, bera bezela,
 Apain ta eder jantzia,
 Artu ezazu orain belico
 Langarren aldiz bicia,
 Ceruco Uso ederrarentzat
 Izan zaitecen abia,
 Fenix guztien fenix cera ta,
 Arantzazuco Maria.

❖ 42 ❖

Zu cera Fenix miragarria,
 Zu cera Fenix autua,
 Zu cera Fenix miraritsu ta
 Jaunaren biotzecua;
 Cera aiñ eder, aundia eta
 Leun, eztitsu, chit gozua;
 Betiraunetic cegoan Jauna
 Zuregarana zoratua.

❖ 43 ❖

Aiñ dira asco eta goitsuac,
 Ama, cerorren gloriac,
 Eciñ litzaque denac cantatu
 Criatura aiñ chiquiac;
 Eta Arantza orretatic zue,
 Eguiñdaco mirariac
 Iscribatzeco, bear liraque
 Liburu guztiz aundiac.

✻ 44 ✻

Orain artean, Ama maitea,
 Egon cera eremuan,
 Baña aurrera esan lezaque
 Zaudela cale ondoan ;
 Cergatle orra joan litequen
 Gaur ya nai dan moduan,
 Oñez ibilli eciñ diranac
 Jarriric coche barruan.

✻ 45 ✻

Poz aundi bat det iragarteco
 Bucatua dala ya,
 Aitzean cear bide eder bat
 Arantzazura berria,
 Agor illaren zortzian aurtan
 Izango da ayudia,
 Arantzazura eguitecotzat
 Dagoan erromeria.

Begoñan igaz izan zan eta,
 Aurten berriz Arantzazun,
 Jaungoicoaren Ama Santa, bai,
 Arren onratu dezagun;
 Cristau-fedea oso ta garbi
 Berac cintzo gorde daigun,
 Premia eta zorigaitzetan
 Laguntza izan daquigun.

Bai, gure Ama, beti zaude zu
 Beti gugatic erreguz,
 Ondau ez gaitzan aserraturic
 Jaunac betico castiguz;
 Eguin ditugu becatu asco
 Baña guztiac gure erruz,
 Barcacioa izan dezagun
 Ama balia zaquiguz.

AMEN.

Ochandiano y Julio 9, de 1881.

Felipe Arrese y Beitia.

187

THE UNIVERSITY OF CHICAGO
LIBRARY

PHYSICS DEPARTMENT

5708 S. UNIVERSITY AVENUE
CHICAGO, ILL. 60637

TEL: 773-936-3636

WWW.CHICAGO.EDU

© 1998 THE UNIVERSITY OF CHICAGO

ZORTZICO.

POR M. LETEMENDIA

Ar antzazuco, euskaldun erromesentzat.

ESTRIBILLO



A...gur a...gur a gur Ma-ri-a a...gur a...



gur guziz gar-bi-a a...gur a...gur Mo-ri-a a...gur a...gur guziz gar-bi-a a...gur a...

Valient.

gur guziz gar-bi-a a...gur a...gur guziz gar-bi-a.

CORLAS



Glori-a ta-a la ban tzak A ma Birgiña



ri, a ran tzaren gaine... an a quertu zana... ri, Glo-ri-a ta-a la



ban tzak A ma Birgiña ri, a ran tzaren gaine... an a quertu za-na-



ri, a ran tzaren gai ñe... an a quertu zana ri. *ritard* DC. al Estribillo.

Handwritten text, possibly a title or header, located at the top of the page.

Handwritten text, possibly a date or reference number, located below the header.

Handwritten text, possibly a name or subject, located in the middle section of the page.

Handwritten text, possibly a description or notes, located in the lower middle section of the page.

Handwritten text, possibly a list or detailed notes, located in the bottom section of the page.

Handwritten text, possibly a signature or footer, located at the bottom of the page.

ARANTZAZUCO-EUSCALDUN

ERROMESENTZAT

AMA[BIRJIÑARI EGITECO

AGURRAC,




CANTARTEA.

*Agur, agur, agur Maria,
Agur, agur Guztiz garbia.*

CANTALDIAC.

ofo 1 ofo

Gloria^{ta} alabantzac
Ama Virgiñari,
Arantzaren gaincan
Aguertu zanari. 
Agur, agur, etc.

✽ 2 ✽

Zu zaitugu guc Ama,
 Enscaldun-errian,
 Laguntzalle sendoa
 Premia guztian.

Agur, agur, etc.

✽ 3 ✽

Cristau guerrariantzat
 Gordetzallea zu,
 Batalletan cerorrec
 Lagundu dituzu.

Agur, agur, etc.

✽ 4 ✽

Ecaitz gogor artean
 Ta larri aldian,
 & Cembal gorde dituzu
 Ichaso erdian?

Agur, agur, etc.

✽ 5 ✽

Ujola aundietan
 Ya chit ituac,
 Biziz atera ditu
 Cerorren escuac.

Agur, agur, etc.

✽ 6 ✽

Osau eciñ da iñore
 ¡Cembat gaišo triste,
 Zure graciarequiñ
 Sendatu diradel!

Agur, agur, etc.

✽ 7 ✽

Eman izan diezu
 Beste batzuei bista,
 Ceudenai oso ichu
 Eciñ icusita.

Agur, agur, etc.

✻ 8 ✻

Gorputzez gueldituac,
 Eta elbarriac,
 Asco jarri dituzu
 Zue ibiltariae.

Agur, agur, etc.

✻ 9 ✻

Azquenez illac ere
 Dituzu, bai, piztu,
 Jaungoieoaz urrengo
 Guztia al-dezu.

Agur, agur, etc.

✻ 10 ✻

Jaunac apropos cera
 Mirariz eguiña,
 Iñor pareric gabe
 Ama ta Virgiña.

Agur, agur, etc.

✽ 11 ✽

Aren Baratzan cera
 Lore doatsua,
 Guizon eta Jaungoico
 Da zure frutua.
Agur, agur, etc.

✽ 12 ✽

Zurequin gauz aundiac
 Berac eguin ditu,
 Graci ugariaquin
 Cinduzan gaineztu.
Agur, agur, etc.

✽ 13 ✽

Orche ciñan aguertu
 Mutill artzayari,
 Erruquia artuta
 Euscal-erriari.
Agur, agur, etc.

✧ 14 ✧

Aitz an ¿ cer zan lenago ?
 Eremu tristea;
 Orain berequin dauca
 Ceruco onrea.

Agur, agur, etc.

✧ 15 ✧

Zuregan utsic Ama
 Birtutea dago,
 Aitz ura bera baño
 Ascoz garbiago.

Agur, agur, etc.

✧ 16 ✧

¡ Oh Virgîna Maria !
 ¿ Cer dezu irudi ?
 Elur eguiñ berria
 Ez zu beciñ zuri.

Agur, agur, etc.

✧ 17 ✧

Anima ta gorpulzac,
 Zarrac cein gazleac,
 Zu icustera galoz
 Contentuz beteac.
Agur, agur, etc.

✧ 18 ✧

Aditu zazu, Ama,
 Arantza-tronutic,
 Euscaldunen fedea
 Gorde zazu zutic.
Agur, agur, etc.

Ochandiano 9 de Julio de 1881.

Felipe Arrese y Beitia.

SINISMEN EDOFEDEAREN

AITORMENA.



Orrua egnin beza
 Infernu arruac
 Ez dú ondoric joco
 Pedroren barcuac:
 Euscaldunac au gaude
 Ondo siñistnac
 Ala esan cigulaco
 Ceruco Maisuac.
 Euscaldunac nai degu
 Beti beti bici
 Chit gogor itsatsiric
 Ontzi santu oni,
 Ez beñere ecaitzen
 Bildurric iduqui,
 Cerura iristea
 Dezagun mereci.

A MA DONCELLA

ARANTZAZUCOARI.



ERREGUA.



Jangoicoaren ama
 Artzai Rodrigori
 Arantzan aguertua,
 Beguiratu guri.
 Zu cera euscaldanen
 Atseguin osoa,
 Ta premian daudenen
 Pozgarri gozoa.
 Zure seme Jesusen
 Religio santua
 Orain icusten degu
 Chit perseguitua.
 Dudarican ez dago
 Dabil infernua,

Bera deseguiteco,
 Chit empenatua.
 Badira guiza charrac
 Gaurco egunean
 Diotenac laguntzen
 Luzbeli lancan.
 Guezurra mingañean,
 Trampia biotzean,
 Onelacoa franco
 Da gure artean.
 Aita Santua ere
 Bere jaureguian
 Preso dute ipiñi
 Naigabe aundian.
 Erregutzen dizugu
 Zuri, ¡oh! Maria,
 Humilla dezazula
 Oyen arrabia.
 Eman bici lucea
 Aita Santuari,
 Eta libertadea

Bere Eleizari.
Ez aztu, Ama ona,
Ez, euscal-erria,
Zure on gozoetan
Gaur auzpez jarria.
Izan dezagun emen
Paque chit aundia,
Eta guero ceruan
Betico gloria.

Fr. J. E.





AMA VIRGIÑA ARANZAZU-COARI
AGUR-ONA EDO SALVEA,
AITA ARANAE ATEBEA.

CANTARTEA.

¡Agur, Aranzazuco
Arrosa, *María*,
Lora eder ceruco
Pareric-gabial
Gugan ezarri-zazu
Bertute-loria,
Quenduric pecatuen
Aranz-elorria.

CANTARTEA.

—
 ❖ 1 ❖

¡Agur, Ama-Virgiña
 Ceruco Erre-guiña,!
 Agur, gure bizitza
 Uste ta atsegiña!
 Erruquizco jargoya
 Gure poz-erpiña!
 Eguiñ-gaitzatzu zure
 Mesedeen diña.

❖ 2 ❖

Erbestetuta gaude
 Eva-ren uniac,
 Deyezca zuri alcharic
 Biotz ta beguiac:
 ¡Ibar negarrezcoan
 Ona emen utziac!
 Zu-opa-zailu gure
 Arnas-intziriac.

o 3 o

¡Ea badal cerala
 IGure-Bitarteco,
 Itzul-zugana, erruquiz
 Gu beguiratzeco;
 Eguiñ guero mesede
Jesus icusteco,
 Zure fruitu eder ori
 Beti maitatzeco.

o 4 o

Virgiña Ama Maria,
 On da biotzbera,
 Atoz, bai, atoz, arren,
 Gu salvatutzera:
 Segurqui, guregatic
 Zuc erregutzera,
 Cristo-ren agünduben
 Diña eguingo guera.

Alabiz.

ICHASOCO IZAR VIRGIÑA

EDO

"Ave maris stella" EUSCARAZ.

AITA ARANA-RENA.

- 1.—¡Agur, ichasoco izar
Ama Jaincozcoal
Beti-beti Virgiña
Ta ate cerncoal
- 2.—Arturic Gabriel-en
Agur-on maiteac,
Paquez sendo gaitzatzu
Eva-ren umeac.
- 3.—Ascatu pecatutic;
Arguitu beguiac;
Quendu gaitzac; escatu
On guzti-guztiac.
- 4.—Amatzat aguer-zaitez:
Ar-bitza erreguac
Zugandi jayo-zaigun
Seme-Jaungoictuac.

- 5.—Virgini-paregabea,
 Garbi ta ochan-cera;
 Culpac quendu, ta iguzu
 Garbitasun-bera.
- 6.—Bici-gaitecen garbi
 Bide seguruan,
Jesus icusi-arte
 Belico ceruan.
- 7.—Onra Aita, Seme ta Jaun
 Espiritubari;
 Onore bat-ber-bera
 Iru personal.

Alasse izan bedi.


AZQUEN-AGURRA AMA VIRGIÑARI,
 AITA ARANAC IPIÑIA.

✻ 1 ✻


¡Agur Jesusen Ama
 Virgiña maitea!
 ¡Agur ichasoco izar
 Distiatzallea!
 ¡Agur Ceruco Eguzqui
 Pozquidaz betia!
 ¡Agur pecatarien
 Caya ta estalpia!

✻ 2 ✻

¡Agur guizonen Ama,
 Ceruco Erreguiña,
 Ama gozo chit maite
 Amorezco piña!
 Zuregandic juatea
 Gauza da samiña.....
 ¡Agur nere biotzeco
 Poza ta atsegiña.



¡Agur gure poza ta
 Atseguin guzliya,
 Atsecabe danetan
 Gozacai eztiya!
 ¡Agur Virgīna eder
 Chit zoragarria!
 Ar-zazu biotza ta
 Torizu biciya....



Zuregandican alde
 Biotzac ecin du;
 Zuregana dijoa,
 Zugan bici naidu;
 Virgīn paregabea
 Bedeinca nazazu,
 ¡Agur, ama nerea,
 Agur, agur, agur....



Ama Virgíña Aranzazucoari Gantaera por M. Lelemendia.
Estrillo.



A-ran-zu-co A ma Vir gi-ña ce ru-co E-r-re-guñi



aun di-a, quendu pe-ca-tu da-nen a ran tzac e man Jau



na-ren gra-ci-a e-man Jau-na-ren gra-ci-a.



A-gur ce-ru-bén e-der-ta-su-na a-rro-sa

zu-ri go-ri-ya, a-pam du-ri-en lo-re-bi-ca-ñez

Jauungi co be-rac jam-tzi-ya, a ran tzaar te-an a-ran tza
ga-be a-ran tzan go-ra jai qui ya a-gur don-ce-lla

gra-ci-a-co-a gra-ci-be-ra-ren jar-go-ya, gra ci-be-
ra-ren jar-go-ya.

D.C. al estribillo.





AMA BIRGIÑA

— ARANZAZU-COARI —

CANTAERA.

AITA ARANAC JARRIA.



CANTARTEA.



*Aranzazuco Ama Virgiña
 Ceruco Erreguin aundia ;
 Quendu pecatu danen arantzac,
 Eman Jaunaren gracia.*


CANTALDIAC.

✧ I ✧


Agur ceruben edertasuna
 Arroza zuri gorriya,
 Apaindurien lore-bicnñez
 Jaungoico berac jantzia,
 Arantza artean arantza gabe
 Arantzaz-gora jaiquia !
 Agur doncella graciazcoa,
 Graci beraren jargoya !

✧ II ✧


Zu ceru lurren maitagarrizal
 Zorionean sortuba,
 Mundu onetan ecailz-artean
 Gabiltzan danon portuba;
 Zu gure Ama, gure bicitza,
 Gure biotzen gar-suba;
 Zu aingueruen zoragarria,
 Zu santu danen coruba.




Izarraitz eta Aizgorri-baño
 Gogorragua zu cera,
 Olatu airu suleicelarrac
 Ezarritzeco lurrera
 Beltzebu bera lotsagorrian
 Macurtu zazu oiñpera
 Acha cerala pecatu gabe
 Ceru, guztien gañera.



Zure obra zan Aloña-peco
 Arcaitz artean jartzea,
 Birtute ederren lorategui bat
 Usai ceruzcoz betea;
 Ortic leenengo alda cenduan
 Mejitotarren lorea
 Frai Zumarraga Indiatarren
 Fede-eracuse trebea.



Aranzazuco Ama Virgíña!
 Deyezca zure aurrean
 Or egondu zan San Inácio
 Anai batequin gaubean.
 ¡Aranzazuco Ama Virgíña!
 Daude deyezca lurrean,
 Zuri deyezca ichas-guizonac
 Galerna gogor tartean.



Ortican zaude Euscal-errico
 Seme gaisoen beguira,
 Gaur zure seme oyeñ contraco
 Etsayac pranco badira;
 Zugana gatoz, Ama maitea,
 Zure mantupe arguira
 Isuri zazu ceure indarra
 Euscal biotzen erdira.

Zure laguntzaz, Ama Virgiña,
Oquendoc zuen garaitu,
Zure laguntzaz Elcano batec
Mundu osoa neurritu,
Zure laguntzaz Jabierrec du
Sortalde lurra arguitu,
Zure laguntzaz onen da goyen
Euzcal-arraza da arqitu.

FIN

